



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 28a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri zehatzak aplikatuz kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-24/MOC-00075. Mozioa, zeinaren bidez gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duten ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten baitu Nafarroako Parlamentuak. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen baten bidez indartu eta finka dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen etxeko laguntza-zerbitzua garatzeko. Javier Arza Porrás jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietako negoziatzailea abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko. José González Felipe jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-24/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-24/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan herritarren segurtasuna zertan den jakiteko azterlan bat egin dezan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-24/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Sekretu Ofizialei buruzko Legea alda dezan. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (10. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita neurri zehatzak aplikatu ditzan kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita neurri zehatzak aplikatu ditzan kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eztabaidatzeko eta ondoren horren jarraipena egiteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak honako hau jasotzen du Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren webgunean, "Kirola eta desgaitasuna" atalean: Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak (NKJFI), besteak beste, kirolean berdintasuna sustatzea du helburu, genero berdintasunaren eta desgaitasunen bat duten pertsonen aldeko ekintza zuzena eginez.

Aukerak, gizarte kohesioa eta lan hobekuntzak sortu nahi dira sektore honetan, irauteko boka-zioarekin, oinarritzko kirolari, talentua erakartzeari,

gazteen eta kirolean baztertuak izateko arriskuan dauden taldeen babesari eta integrazioari lotuta.

NKJFIarentzat funtsezko ardatza da desgaitasuna duten pertsonak kirolean sartzeko programa zehatzak garatzea, desgaitasuna duen edozein kirolari erabat eta eraginkortasunez sar dadin bul-tzatzeko, oinarritzko kirolean arreta berezia jarrita".

Webgunean adierazten diren funtsezko helburu eta ardatz horiek ez datoz bat sustatzen diren ekintzekin, zeinak inondik ere ez baitira aski gure erkidegoan kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko konpromisoa betetzeko.

Desgaitasuna duten kirolariek egindako eta kirol egokituko klubek eta elkarteek sustatuko jarduerak ikusgai jartzeaz gain, UPNren ustez neurri zehatzak hartu beharra dago Nafarroan kirol egokitua faboratzeko, garatzeko, laguntzeko eta sustatzeko; bereziki, laguntza horien erdigunean desgaitasuna duten kirolariak jartzeko.

Horregatik guztiagatik, Unión del Pueblo Navarrok honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu honako neurri hauek ezar ditzan kirol egokitua babestu, sustatu eta aldezteko:

– Laguntza eta dirulaguntza bereziak, deialdi orokorren esparrutik at.

– Beraien entrenamenduetarako espazio publikoak.

– Boluntariora sustatu eta prestatzea.

– Toki-entitateentzako laguntzak, kirol inklusiboko jardueretarako, eta koordinazio plana.

– Berariazko prestakuntza tekniko desgaitasuna duten kirolarientzat, teknikari, epaile edo buruzagi eginkizunak egin ahal izan ditzaten.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-24/MOC-00075. Mozioa, zeinaren bidez gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duten ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten baitu Nafarroako Parlamentuak

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duten ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten baitu Nafarroako Parlamentuak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Parlamentuak gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duten ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten du.

Jarraipena eginen duen batzordea: Lehendakaritza eta Berdintasuna.

Zioen azalpena

Gorroto-diskurtsoa arazo sozial bat da, gero eta sarriago entzuten da, gizartea zatitzen du eta arrisku handia da demokraziari begira. Eskuin-muturreko alderdien gorakadaren ondorioa da Europako herrialdeak zeharkatzen ari den gorrototsunamia, alderdi horien mezu guztiz alarmista, laido garri eta baztertzaileak hedatzearen ondorioa.

Arazorik handiena da gorroto-diskurtsoa gorroto-delituaren bezpera dela. Pertsona edo talde

jakin batzuen aurkako irain eta diskurtsoek nabarmen areagotzen dute polarizazio soziala, eta, finean, "imitazio-efektua" sortzen da, halako delituek errepikatzea dakarrena.

Espainiako gizartearen gehiegizko polarizazioak ahalbidetu du halako mezuak hedatzea, eta, egia den arren gizarte hori hainbat esparrutan eta talde jakin batzuen aurka gertatzen diren gorroto-diskurtso horien larritasunaz ohartuta dagoela, politikan normalizatu egin da hori dena. Ardura-dun politikoak garen aldetik, ez dugu utzi behar gorroto-diskurtso horiek gure bizikidetasuna eta kohesio soziala mehatxatu ditzaten eta gizarte-adostasunak hauts ditzaten.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak gorrotoa sustatzen eta bultzatzen duten ordezkari publikoen adierazpen politiko oro gaitzesten du, gorroto horren oinarrian zernahi ere dagoen: jaioterria, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo -identitatea nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo soziala.

2. Nafarroako Parlamentuak gogora ekarri nahi du ezen ordezkari publikoek funtsezko egitekoa eta ardura daukatela bizikidetasuna eta errespetua sustatzeko eta gorrotoa eta intolerantzia piztearen aurka borrokatzeko; hortaz, ez dute hori sustatzen duen inolako adierazpen publikorik egin behar.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du konprometituta dagoela bizikidetasun baketsuaren nahiz aniztasunarekiko errespetuaren sustapenarekin eta giza eskubideen defentsarekin; bereziki, ideologia- erlijio- eta kultu-askatasunarekin, zeina Espainiako Konstituzioaren 16. artikulua babesten baitu.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita hitzarmen baten bidez indartu eta finka dezan toki-entitate-en finantzaketa, udalen etxez etxeko laguntza-zerbitzua garatzeko

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita hitzarmen baten bidez indartu eta finka dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen etxez etxeko laguntza-zerbitzua garatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Mendekotasuna artatzeko gure sistemaren ahulguneetako bat da zerbitzuek baino pisu handiagoa dutela prestazioek. Mendekotasunaren Estatuko Behatokiaren azken txostenaren arabera, Nafarroan aplikatutako baliabideen ia erdia dira familia-prestazio ekonomikoak; estatuan, berriz, % 30 egiten dute. Aplikatutako zerbitzuen artean, gainera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak –munta handikoa baita– % 4,8 soilik egiten du (estatuko batez bestekoa % 18,6koa da).

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua toki-entitateek kudeatzen dute, eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen. 2008tik hona, Gizarte Zerbitzuen Zorroak bermatzen die zerbitzua mendekotasuna baloratuta daukaten pertsonen.

Mundu guztia bat dator esatean Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua funts-funtsezkoa dela autono-

mia-zailtasunak dauzkaten pertsonen ahal den denborarik gehiena eman ahal izan dezaten etxean. Hortaz, funtsezkoa da zerbitzu hori Nafarroan sendotzea.

Mendekotasunaren Estatuko Behatokiak ez ezik, Nafarroako Gobernuaren beraren txostenek ere aipatzen dituzte Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ahulguneak. Esaterako, iraupen luzeko zaintzei buruzko 2023ko txostenak dio “Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak arazo handiak” daukela Nafarroan. Hona, besteak beste, arazook: hutsaldu egin da zerbitzu horrek hasieran zuen prebentzio-izaera, eta gero eta handiagoa da erabiltzaileen zahartze-gradua eta mendekotasun-maila; Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua modu batekoa da toki-entitateetako bakoitzean, halako moldez non ez baita zerbitzua baliatzeko ekitatea bermatzen; ez da bermatzen banakako laguntza-planean jasotzen den intentsitate-mailaren arabera zerbitzua jasoko dutela erabiltzaileek, horretarako eskubidea izan arren; langileen arloko kudeaketa konplexutasun handikoa da, eta horrek eragina du zerbitzua emateari eta lan-eskubideei begira.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du:

1. Hitzarmen bidez sendotu eta finkatu dezan toki-entitateen finantzaketa, udalen etxez etxeko laguntza zerbitzua eman dezaten, halako moldez non handitu egin ahalko baita zerbitzuaren irismena, hala artatutako pertsona kopuruari nola egindako ordu kopuruari, artatzeko egunei eta ordutegiari edo profilei dagokienez. Legegintzaldirako helburua izanen da estatuan ematen den etxez etxeko zerbitzuaren batez bestekora hurbiltzea gutxienez (% 18), mendekotasunari arreta emateko sistemak emandako zerbitzuetan.

2. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta, etxez etxeko laguntzako zerbitzuari buruzko ordenantza-eredua gaurkotu dezan 2024an zehar, halako moldez non bermatu eginen baita udaletan zerbitzua baliatzeko ekitatea.

3. Egutegi bat zehaztu dezan 2024an zehar, gizarte zerbitzuen zentro guztietan legegintzaldian zehar hedatzeko autonomia artatzeko ekipo espezializatuak. Ekipo horietatik laguntza espezializatu

osagarria eman behar da, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta eta autonomia pertsonaleko tokiko programei dagokienez. Ekipo horiek orobat egin beharko dute gizarte zerbitzuetako alor bakoitzeko zaintza zerbitzuen arteko koordinazioa; horien artean, udalen etxez etxeko laguntza zerbitzua dago. Une honetan, ekipo hori Tuterako arloan bakarrik ari da abian jartzen.

4. 2024an zehar egutegi bat zehaztu dezan, legegintzaldian zehar PAISS proiektua egiteko, halako moldez non arreta soziosanitario integral eta integratua bermatuko baitzaie etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileei eta, oro har, biztanle guztiei. Orain arte, PAISS Tuterako, Tafallako eta Lizarrako arloetan bakarrik egiten da.

5. Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuekin koordinatua dadin, 2024an zehar prozedura bat taxutze aldera, zerbitzu mota hori lantzeko kre-

ditazio-prozesuetan eta titulazioetan zenbaitetan gertatzen den nahastea eta gainjartzea argitzeko

6. Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuekin koordinatua dadin, 2024an zehar prozedura bat taxutze aldera, formakuntza mota hori lortu ahal izatea errazteko, bereziki landa-ingururik, esate baterako online formakuntzaren edo prestakuntza erdipresentzialaren bidez.

7. Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuekin koordinatua dadin, etxez etxeko laguntza zerbitzuan lan egiten duten pertsonen etengabeko prestakuntza indartzeko plan bat taxutzeko.

8. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa publikoa berma dezan, zerbitzuaren kalitatea eta langileen lan-baldintzak faboratzen dituen neurri gisa.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-24/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietako negoziazioa abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko

JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietako negoziazioa abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita langileen ordezkarietako negoziazioa abiaraz dezan, Nafarroan hezkuntzaren kalitatea areagotu ahal izateko lortu beharreko akordioak lortzeko.

Zioen azalpena

Irailaren 14ko 86/2018 Foru Aginduaren bidez argitara eman zen Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Ituna.

Itun horretan izanen zuen indarraldia ezartzen zen, sinatu zenetik 2022ko abuztuaren 31ra arte; hala ere, bere baliozkotasuna luzatuko zen itun berri bat sinatu arte. Hori guztia, itunean jasotako

neurriak itunean bertan aurreikusitako epean bete behar izatea galarazi gabe.

Bestalde, 2022ko uztailean bi urterako hitzarmena sinatu zen irakaskuntza itunduko sektorearekin, 2024ko abuztuaren 31ra artekoa.

Gaur egun, 2018ko irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Itunean ezarritako indarraldia amaitu eta bi urtera, oraindik ere badira bete ez diren neurriak eta, are okerragoa dena, Hezkuntza Departamentuak ez du negoziazio globalik hasi nahi itun hori berritze aldera.

Irakaskuntza itunduari dagokionez, langileen ordezkariak salatzen dute Hezkuntza Departamentuak eta sektoreko patronalek ez dutela inongo borondaterik egungo akordioa, ikasturte honen amaieran iraungiko dena, ordeztuko duena negoziatzeko.

Eztabaida eta negoziazio gune bat ez irekitzeko eta Nafarroako irakasleen ordezkari legitimoek ez entzuteko jarrera hori behin eta berriz ikusirik, langileek negoziazio kolektiborako duten eskubidea urratzen ari da eta, halaber, mantentzen ari den lan egoerak galarazi egiten du hezkuntzaren arloan muntako erabakiak hartzea, irakaskuntzan etorkizunean izan daitezkeen egoerei aurre egiteko eta Nafarroako eskolan ekitatea eta kalitatea bermatzeko.

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

– Negoziazio globalerako egutegi bat ezar dezan, landu beharreko gaiak eta epe zehatzak jasoko dituen, Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko Ituna berritzeko xedez.

– Irakaskuntza itunduko langileen ordezkarietara helaraz diezaien sektoreko patronalekin irekitako negoziazioa, heldu den ikasturtean indarrean sartu beharko lukeen hitzarmen berria adoste aldera.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Pedro José González Felipe

11-24/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita ama-esneko bankua sor dezan

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osasuneko Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Gaur egun, Nafarroa da ama-esneko bankurik ez duen Espainiako bi autonomia-erkidegoetako bat.

Ama-esnea emateko prozesua hautatu, erre-gistratu eta kontrolatzen espezializatutako zentroa da esne-bankua.

Bankua sortzeak eragin positiboa izanen luke behar baino lehen jaiotako edo gaixotasunen bat duten haurrengan. Ama-esnea haurtxo horien biziraupenerako berme bat da.

Gainera, funtsezkoa da Nafarroako Gobernuak behar diren jarduketak egitea bai pazienteei bai emaile potentzialek ematen den zerbitzu horren berri izan dezaten. Betiere medikuen gainbegiradapean eta kontrolpean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parla-mentuak honako erabaki-proposamen hau onesten du:

Nafarroako Parla-mentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere 6 hilabeteko epean ama-esneko banku bat sor dezan, eta behar diren jarduketak egin ditzan erabiltzaile eta emaile potentzialek zerbitzu horren berri izan dezaten.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan herritarren segurtasuna zertan den jakiteko azterlan bat egin dezan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan herritarren segurtasuna zertan den jakiteko azterlan bat egin dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Demokrazian elkarbizitzaren oinarrizko zutabe-etako bat herritarren segurtasuna da; funtsezko elementua da herritarren eguneroko bizitzari egonkortasuna emateko, hala eremu pertsonalean nola lan- edo gizarte-eremuan. Ondasun konstituzional gisa osatzen da, oinarrizko ondasun publiko gisa, eta xede du hartu behar diren prebentzio-, babes- eta erreparazio-neurriak hartzea, herritarrek askatasunez eta bermeeekin esku hartu ahal izan dezaten komunitatean bizitzeak dakartzan maila guztietan eta erabakiak hartzeko eta parte hartzeko prozesuetan.

Herritar batek ere, egoera sozioekonomikoa edo bizi den lurraldea edozein dela ere, ez du zertan galdu seguru egoteko eta sentitzeko eskubidea. Edozein gizarte demokratikoren lehentasunezko helburuetako bat izan behar da herritarren

segurtasuna bermatzea eskubideak eta askatasunak modu berean baliatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatean dagoen kriminalitate-tasaren bilakaerari buruzko datu estatistikoek –Espainiako gainontzeko lekuetan bezalagoranzko bilakaera izan dute delitu mota oroz denez bezainbatean.

2024ko lehen hiruhilekoan, Nafarroan kriminalitatea % 4,4 igo zen aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta; guztira, 8.421 arau-hauste penal izan ziren, Barne Ministerioaren Kriminalitate-Balantzearen datuen arabera. Horrela, Foru Komunitatearen kriminalitate-tasari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan 1.000 biztanleko 52,8 arau-hauste penal izan dira, nazioko batez bestekoa baino 1,1 puntu handiagoa.

Aurrez adierazitako aldi berean, droga-trafiko-agatiko delituak % 42,9 igo ziren (35etik 50era) eta sexu-askatasunaren aurkako delituak % 7 (86tik 92ra). Halaber, % 12,5 igo da lesio eta lis-kar nahaspilatsuen delitu astun eta ez hain astunen kopurua (80tik 90era), eta % 16,3 gainerako kriminalitate konbentzionalaren kopurua (3.375 arau-haustetik 4.342ra).

Azkenik, Kriminalitate-Balantzean jasota dator 20.000 biztanletik gorako udalerrien xehakapena:

– Eguesibarren, arau-hauste penalen kopurua % 5,3 igo da (187tik 197ra). Kriminalitate-tasari dagokionez, 1.000 biztanleko 33,3 arau-hauste penal izan dira.

– Iruñean, arau-hauste penalak zertxobait igo dira, % 1,5 (3.354tik 3.405era). Kriminalitate-tasari dagokionez, 1.000 biztanleko 75,1 arau-hauste izan dira.

– Tuteran, arau-hauste penalak % 10,9 igo dira (599tik 664ra). Kriminalitate-tasari dagokionez, 1.000 biztanleko 69,5 arau-hauste izan dira.

– Burlatan, arau-hauste penalen kopurua % 26,6 igo da, 143tik 181ra. Kriminalitate-tasari dagokionez, 1.000 biztanleko 33,9 arau-hauste izan dira.

Era berean, Fiskaltzaren 2022ko Oroitidazkiak bilakaera hori berretsi du. Foru Komunitateko fiskal nagusi Jaime Goyena jaunak aipatu oroitidazkiaren aurkezpenean azaldu zuenez, delinkuentziaren hazkunde globala gertatu da, bereziki

islatua delitu arinen epaiketetan, % 32 igo baitira. Gainera, kezka agertu zuen sexu-askatasunaren aurkako delituen gorakada dela-eta, batez ere biktimak 16 urtetik beherakoak direnean.

Nafarroako Foru Komunitatean herritarren segurtasunik eza areagotzeak eztabaida irekia eskatzen du, parte-hartze sozial zabalarekin, irizpide partzialik edo lerraturik gabe, Foru Komunitatean herritarren segurtasunerako benetako politika baten inguruko argitasuna, konpromisoa eta irmotasuna sortzeko helburuarekin, baita herritarren segurtasunerako espezifikoak izan gabe lagungarriak izan daitezkeen politikak ere.

Gure ustez, legebiltzar-esparrua da egokiena gai honi heltzeko, eta, zehazkiago, *ad hoc* batzorde berezi baten esparruan, aztertze aldera kriminalitatearen gorakada eragiten duten balizko kausak, egoera hori arintzeko egin daitezkeen jar-

duketak, gure Erkidegoan polizia nahikoa ote dagoen eta eskuragarri dauden gainerako baliabide teknikoak eta giza baliabideak koordinatu ote daitezkeen.

Hori horrela, azaldutakoaren babesean, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako herritarren segurtasunari buruzko azterlan bat egin dezan, Nafarroan kriminalitatearen gorakadari eta horren kausei lotua, eta gehienez ere 3 hilabeteko epean Legebiltzarrera ekar dezan.

2. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea arduratuko da mozioaren jarraipena egiteaz.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Sekretu Ofizialei buruzko Legea alda dezan

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Sekretu Ofizialei buruzko Legea alda dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Blanca Regúlez Álvarezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, heldu den maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran (osteguna) eztabaidatzeko. Jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasuneko Departamentuak eginen du.

Zioen azalpena

Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1986 Legea da sekretu ofizialen arloan indarrean dagoen legea. Lege hori, frankismoaren garaia dena, 1978ko urrian aldatu zen hein batean urriaren 7ko 4/1978 Legearen bitartez, konstituzio-aurreko garaian hain zuzen ere.

Hortaz, demokraziaren bihotz-bihotzean eragiten duen arlo horretan, Espainia 1968ko lege baten arabera eraentzen da, araubide diktatorial baten logikaren arabera: frankismoa.

Lege horren bidez eragotzi egin da munduko herrialde gehienetako legeen babesean jendaurrekoa izanen beharko lukeen informazioa ezagutzea, Estatuaren segurtasunaren eta defentsaren babesean.

Estatuaren segurtasuna eta defentsa konstituzioaren bidez babestutako balioak dira, eta Estatuaren Gobernuari dagokio horiek zaintzea, Estatuari eragiten dioten gaietarako sarbidea eragotziz

herritarrei. Balio eta zaintza hori, ordea, ez da erabatekoa. Aitzitik, parametro demokratikoei erreparaturaz gero, Espainian 1978az gero konstituzioaren bidez babestuta —formalki baino ez bada ere— dauden beste balio eta printzipio batzuekin adostu beharrekoa da balio hori.

Argitaratu zenetik 56 urte eta aldatu zenetik 46 urte iragan eta gero, beharrezkoa da lege hori gaur egungo sentiberatasun sozialera egokitzea gure gizartea oinarritzen eta eraentzen duen printzipio demokratikoak berezkoa duen gardentasunaren balioari dagokionez, bai eta egungo erakundeak egokitzea ere, are gehiago azken asteotan mahai gainean dugunean Estatuaren Gobernuaren lehendakari Pedro Sánchezek demokrazia biziberritzeko deia egin duelarik. Eztabaida hau aukera ona da gure klasifikatze eta desklasifikatze sistema zaharkitua gaurkotzeko, gure inguruko herrialdeekiko homologarriagoa den XXI. mendearen arabera bat ezarrita.

Sekretu ofizialei buruz indarrean dagoen legeak ez du jasotzen eta aintzat hartzen informazio klasifikatuari eskatzen zaion test hirukoitza —legekotasuna, proportzionaltasuna eta premia—, ez du sailkatze-epetik jasotzen —hartara, informazioa betiko izan daiteke sekretua— eta ez du prozedura argirik informazio juridikoa klasifikatzeko eta desklasifikatzeko, ez eta beste auzi batzuk ere, baldin eta begiratzen badiogu hizkera anbiguo bat erabiltzeari, edo une honetan ulertezinak diren erakunde batzuei aipamena egiteari.

Hortaz, beharrezkoa da gai bat sekretutzat edo erreserbatutzat klasifikatzen bada —lege honek izen hori ematen die—, horrek indarraldi jakin bat izan dezan, AEBetako, Erresuma Batuko, Alemaniako edo Suitzako legedietan egiten den moduan.

Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko orori Estatuaren jardunari dagokionez eskatzen zaion gardentasunaren arloan, sekretuei buruzko egungo legeak mugatu eta murriztu egiten du informazioa eskuratzeko eskubidea, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 19.2 artikuluan jasota dagoen adierazpen eta iritzi askatasunaren giza eskubidearen parte dena.

Eskubide hori murriztuta dago etorkizuneko eta gaur egungo informazioei dagokienez edo gure giza eskubideekiko errespetuarekin eta babesarekin lotutako informazioei dagokienez eta,

zergatik ez, gure gizartearen etorkizuna uki dezaketen informazioei dagokienez.

Parlamentu honek bere jarrera finkatu zuen aurreko legegintzaldian (2021ean); izan ere, sekretu ofizialei buruzko legea aldatzearen alde agertu zen, honako mozio hau onetsi zuenean (PSNk, Geroa Baik, EH Bilduk, Podemosek eta I-Ek aldeko botoa eman zuten, eta Navarra Sumak, aldiz, aukakoa): “Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko Legearen estatu demokratiko bati eskatzekoak zaizkion nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– nahiz informazioa jasotzeko eskubidea –gizartearen oinarrizko eskubidea baita– bete daitezten, Estatuak izandako jokabideei dagokienez.”

Gaur, jakina denez, berdin gaude, Diputatuen Kongresuan zenbait ekimen aurkeztu diren arren. Hortaz, uste dugu beharrezkoa dela erakundeetan –ez Estatuan soilik, nahiz eta legez berarena den erreforma egiteko eskumena, ezpada hemen Nafarroan ere– eztabaida bat egitea atzean uzteko sekretu ofizialei buruzko iragan autoritario hori, sistema demokratiko batekin bateraezina dena.

Higiene demokratikoagatik, nahitaezkoa da desklasifikazioa. Desklasifikazioak, Amnistia Internazionalak jasotzen duen legez, etorkizunean giza eskubideak urratzea saihesten du; giza eskubideen urraketan ikerketan sakontzen du; biktimek egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubidea dutela bermatzen du, eta berriro ez gertatzeko bermea ematen du. Nazioarteko zuzenbidea bete beharra dago, Estatuaren segurtasuna babestea,

demokrazia batean, ez baita posible baldin eta ez badira bermatzen egia ezagutzeko eskubidea, giza eskubideen babesa eta giza eskubideen urraketan erreparazioa.

Sekretu ofizialei buruzko lege honetatik behin betikoz atera beharreko gertakariak dira iraganeko zenbait gertakari; esaterako, Estatuak diktadura frankistan izandako jokabideak, trantsizioa, otsailaren 23ko estatu kolpea, 1985eko azaroan Mikel Zabalza desagertu eta hil izana edo GALen erailketak. Hainbeste urte igaro eta gero, kasu horiek ezin dute isiltasunaren eta zigorgabetasunaren estalpean jarraitu. Gizarteak zer gertatu zen jakin behar du. Kasu horiei guztiei gehitu behar zaizkie dokumentu militar gehienak, harreman diplomatikoak edo terrorismoaren aurkako iraganeko borroka, XV. mendetik XX. mendera bitarteko dokumentuak alegia, gaur egun sekretu ofizial gisa sailkatuak.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Sekretu Ofizialei buruzko Legearen aldaketa izan dadin eraberritze demokratikoa bultzatze aldera Espainiako Gobernuko lehendakariak proposatu dituen neurrietako bat, halako moldez non lege hori XXI. mendeko estatu demokratiko baten eskubide eta printzipio demokratikoetara egokitzeko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

